


Ixabel Berasategi Ormazabal

*Anoeta,
Gipuzkoa
(1925)*

Aurkibidea

Biografia



Modestoenea etxean jaio zen 1925ean. Ama ere bertan jaioa zen. Hamar anai-arrebatan nagusiena zenez, anai-arrebak zaintzea tokatu zitzaion. Ordurako taberna zen "Moxtone", bere aitona Modestok jarria. Atzealdean baserria zegoen. 1935ean etxea guztiz berritu zuten.

Zintak

ANO-008

- **Proiektua:** Adineko anoetarren testigantzak

- **Elkarrizketatzailea(k):** Peñagarikano, Nekane
- **Data:** 2015-01-01
- **Iraupena:** 83 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. "Moixtonen" jaioa; 1935ean etxea berritu zuten

- **Erref:** ANO-008/003
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:00:28. **Bukatu:** 00:02:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

"Moixtonen" (Modestoenean) jaio zen. Ordurako taberna zen, bere aitonak jarri baitzuen taberna. Bere ama ere bertan jaioa zen. Gogoan du 1935ean berritu egin zutela baserria. Etxea nolakoa zen.

2. Bi hilabeteko ahizparen heriotza; aingeruekin lutorik ez

- **Erref:** ANO-008/004
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Hamar senidetan zaharrena zen bera, eta tokatu zitzaion besteak zaintzea ere. Anaia zaharrenak Donostian lan egiten zuen, bulego batean. Neskak etxean geratzen ziren, laguntzen. Ahizpa bat bi hilabete eta erdi zituela hil zitzaien. Aingerua (umea) hiltzen zenean ez zen lutorik erabiltzen.

3. Anoetako eskolako kontuak

- **Erref:** ANO-008/007
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:07:26. **Bukatu:** 00:08:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan neskak eta mutilak batera ibili ziren hasieran. Irakaslea: Filomena Arregi, donostiarra. Beste irakasle bat Tolosakoa zen, Mari Kruz. Eskolako ordutegia. Ahal zuten guztian joaten ziren.

4. Eguneko menua eta apopiloak Modestoenean

- **Erref:** ANO-008/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:08:33. **Bukatu:** 00:10:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Asteazken zehar, inguruetako lantegietan lanean zebiltzanak Modestoenean ("Moixtonera") joaten ziren bazkaltzera. Eguneroko menua zein izaten zen. Apopiloak ere izan zituzten garai batean, baina beranduago, etxea berrituz gero. Apopiloak nongoak ziren. Etxean bertan zituzten abereak eta baratzea, baina ez zuten nahikoa izaten eta kanpoan erosi behar izaten zuten.</p>

5. Neskak etxean lanean; mutilak kanpoan ikasten

- **Erref:** ANO-008/010
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:11:08. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Neskak etxean egoten ziren laguntzen. Mutilak, berriz, kanpoan ikasten. Anaiek non ikasi zuten.

6. Pilotarako zaletasuna, baina ezin kanpora joan inguruko raketistekin

- **Erref:** ANO-008/011
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:15:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Raketistak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Inguruko zenbait neska raketista moduan kanpora joan ziren. Julita Beraza, bere adinekoa, Mexikora joan zen eta bertan geratu zen bizitzen. "Txikita de Anoeta" Madrilen ibili zen. Bera ere neska-koskorretan ibiltzen zen haiekin batera pilotan, eskuz, "zimitaioan". Gero, paletekin frontoian. Aitonak ekarri zituzten paletak. Ahizpak ere ibiltzen ziren. Gustura joango ziren eurak ere kanpora, baina ezin. Kanpora joan ziren lagunekin telefonoz egoten ziren.

7. Neskak eta mutilak "frontoia" lortzeko lehian

- **Erref:** ANO-008/012
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:15:44. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Neskak eta mutilak korrika joaten ziren, pilotan aritzeko "zimitaioa" zeinek lehenengo harrapatu. Besteek aldamenean jolastu behar. Non ibiltzen ziren pilotan.

8. Anoetako eskola; bere garaian neskak eta mutilak batera

- **Erref:** ANO-008/013
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Anoetan eskola non zegoen. Hasieran neskak eta mutilak elkarrekin zeuden, baina gero banatu egin zituzten.

9. Astoa "Moixtonen" utzi, oinetakoak aldatu eta trenera

- **Erref:** ANO-008/015
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:17:54. **Bukatu:** 00:19:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Alkizako jendea astoarekin etortzen zen; euren etxean uzten zuten astoa eta trenera. Oinetakoak ere hantxe aldatzen zituzten. Baserriren batetik hildakoren bat zekartenean ere, gorputza kanpoan mahai gainean utzi eta hantxe aldatzen zituzten oinetakoak. "Moixtone" izena Modesto aitona-rengandik dator.

10. Modestoeneatik elizara bitartean zeuden etxeak; ingurua

- **Erref:** ANO-008/017
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:19:47. **Bukatu:** 00:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Modestoeneatik, euren etxetik, elizara bitartean ze etxe zeuden garai batean. Buztiñaneko jauregia. Apaiza han bizi omen zen. Ingurua nolakoa zen.

11. Anoetako lehenengo eskolak

- **Erref:** ANO-008/018
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Anoetan lehenengo egin zituzten eskolak; eraikin bat neskentzat eta bestea mutilentzat. Eurak joan omen ziren garbitzera, obra bukatu zutenean. Gero beste eskola bat egin zuten.

12. Garai bateko San Juan festak Anoetan

- **Erref:** ANO-008/019
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:23:30. **Bukatu:** 00:26:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Nolakoak izaten ziren garai bateko Anoetako San Juan festak. Txistua eta atabala izaten ziren. Bera ez omen da izan dantza zalea. Erroskilla saltzaileak etortzen ziren eta zozketak ere egiten ziren. Festetako hirugarren egunean gazteak eskera irteten ziren, oilaskoak batzen, eta arratsaldean "oilasko jokoa" egiten zuten. Nola izaten zen. Gero debekatu egin zuten.

13. Neskak "aimaritarako" etxera

- **Erref:** ANO-008/020
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:26:06. **Bukatu:** 00:27:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

"Aimaritako" (abe mariatarako) etxera bueltatu behar izaten zuten festatik. Neska-laguntzea egiteko ere bertan bizi zen bera. Hala ere, bakarrik ere ez ziren ibiltzen, beste lagun batzuekin gehienetan. Neskak etxera eta mutilak neskei etxera lagundu eta gero tabernara.

14. Anoetako arraun taldea

- **Erref:** ANO-008/021
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:27:30. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Kirola » Arrauna

Laburpena:

Arraun taldea zegoen garai batean Anoetan. Guadaluperekin ateratzen ziren. Bandera irabazi ere egin zuten zenbaitetan. Gero ospakizuna. Euren jatetxean egiten zituzten bazkariak.

15. Anoeta inguruko lantegiak

- **Erref:** ANO-008/024
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:32:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Papergintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak

Laburpena:

Inguruan ezagutu zituen lehen lantegi handiak Guadalupe eta Irurako paper lantegia izan ziren. Bietan aritzen ziren anoetarrak lanean. Beste lantegi batzuk eraikitzen ezagutu zituen. Anoetatik Tolosarako zatia nolakoa zen eta zer zegoen.

16. Aste Santuko debekuak

- **Erref:** ANO-008/026
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:33:45. **Bukatu:** 00:34:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Aste Santuan musika eta dantza debekatuta egoten ziren. Leku batzuetan pilotan aritzea ere bai. Anoetan ez zegoenez debeku hori, eurak pilotan ibiltzen ziren. Askotan aitona joaten zitzairen bila, etxera lanean laguntzera joateko esanez.

17. Umeak jolasean ibiltzea ezin ulertu

- **Erref:** ANO-008/027
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:34:55. **Bukatu:** 00:37:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ahal zuten gauza guztietan laguntzen zuten etxean. Gizon batzuk jaiero joaten ziren afari-merienda egitera. Eurretako bati ez zitzaion ondo iruditzen etxean lana edukita umeak jolasean ibiltzea. Berari amorrua ematen zion, baina isilik egon behar. Aitak ere gogor hartzen zuen Ixabel. Aita zorrotza omen zen eurekin. Garaiak hobera aldatu direla dio.

18. Anai-arrebek elkar babesten zuten

- **Erref:** ANO-008/028
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:37:17. **Bukatu:** 00:38:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Anai-arrebek elkar babesten zuten. Anaiak parrandatik etortzen zirenean zer egiten zuten.

19. Dantza-sokan atera nahi ez

- **Erref:** ANO-008/029
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:40:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

Ixabelek ez zekien dantzan eta ez zuen dantza-sokan atera nahi izaten. Beste batzuk zain-zain egoten omen ziren. Sokan aurrenekoari eta azkenari dantza egiten zieten, eta berari lotsa ematen zion. San Juanetan izaten zen dantza-soka. Gerora, Gorpuzti egunean ere soinujolea ekartzen hasi ziren eta San Juanetan baino jende gehiago batzen zen.

20. Aitak masailekoa Villabonatik berandu etxeratzeagatik

- **Erref:** ANO-008/030
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:40:37. **Bukatu:** 00:43:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Inguruko ze herritara joaten ziren festara: Irurara, Villabonara, Asteasura... Txistulariak egoten ziren hasieran; soinujoleak gerora hasi ziren. "Aimarietarako" (abe marietarako) etxera etorri behar. Behin Villabonara joan eta bueltan oinez etorri behar izan ziren, trena matxuratu zelako. Etxera iristean aitak masailekoa eman zion jende guztiaren aurrean. Ordurako 20 urte

bazituen. Aitak ez zuen nahi izaten bera erromeriara joaterik, etxean lana izaten zutelako.

21. Ibañez izozki saltzailea; jatetxerako postreak

- **Erref:** ANO-008/031
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:43:18. **Bukatu:** 00:45:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Erromeriara joaten zirenean izozkiren bat hartzen omen zuen tarteka. Ibañez izozki saltzailea joaten zen karroarekin. Etxean ere egiten zituzten izozkiak, egun berezietarako, baina orduko hozkailuak txikiak ziren eta azkar urtzen ziren. Jatetxerako flanak egiten zituzten etxean. Tartak Ezeiza gozotegitik ekartzen zituzten.

22. Tolosara feriara trenez

- **Erref:** ANO-008/032
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:45:37. **Bukatu:** 00:47:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Tolosara feriara joan izan zen inoiz, babarruna edo etxean sobratzen zena saltzera. Baina eroatera gehiagotan joaten zen. Zerkausia. Trenez joaten zen normalean bera. Geroago Izaskun ahizpa kotxearekin joaten zen. Ezagun asko zituen Tolosan.

23. Permanentea egitera Tolosako ile-apaindegira

- **Erref:** ANO-008/035
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:50:33. **Bukatu:** 00:53:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Garai batean emakume guztiek permanentea egiten omen zuten. Berak ere nahi zuen, baina amak ez zion uzten. Jatetxean bazkari handiren bat eman beharra zutela aprobetxatuz, amari mehatxu egin zion, eta lortu zuen azkenean. Tolosako ile-apaindegi batera joan zen amarekin. Nola egin zioten permanentea.

24. Ama esnea partitzera Tolosara

- **Erref:** ANO-008/036

- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:53:23. **Bukatu:** 00:55:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Eurak umeak zirenean, ama esnea partitzera joaten zen Tolosara, mandoa hartuta. Bezeroak. Aitonak jezten zituen behiak normalean. Alkizako jendea ere joaten zen mandoarekin Tolosara. Gerora, trenez joaten hasi ziren. Bera bizikletaz ere joan izan zen Tolosara, esne-marmitak eta zestoa hartuta.

25. Anoetar asko Tolosako plazara saltzera

- **Erref:** ANO-008/037
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:55:22. **Bukatu:** 00:56:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Esnea partitu eta gero sobratzen baldin bazen, plazara joaten ziren saltzera. Barazkiak ere eramaten zituzten. Tolosako emakumeak izaten ziren plazako erosleak. Anoetatik asko joaten ziren Tolosara saltzera.

26. Bezeroak ordu txikietan nola bota jatetxetik?

- **Erref:** ANO-008/038
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:56:55. **Bukatu:** 00:59:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Euren jatetxean afariak izaten zirenean, batzuetan, ordu txikietan bezeroei erregutu egin behar izaten zieten, alde egiteko. Kaxiano soinujolea joaten zen urte batzuetan afaltzera. Orduko pasadizoak. Ez du inoiz iskanbilarik ezagutu etxean.

27. Ekonomikako labea

- **Erref:** ANO-008/041
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:02:30. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Garai batean ekonomikako labea erretzen zuten jatekoa. Butanoa ere bazuten gero, baina bezero batzuek nahiago izaten zuten ekonomikan erretako jatekoa.

28. Han edo hemen, baina meza sakratua

- **Erref:** ANO-008/046
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:07:24. **Bukatu:** 01:08:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Igandero joan izan da mezara. Etxean lan handia zutenean, Guadalupera joaten zen goizeko sei eta erdietako meza entzutera. Tolosara joaten zenean, bertan entzuten zuen meza, egunero, esnea banatu ondoren.

29. Hiru zinema-areto Tolosan

- **Erref:** ANO-008/047
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:08:45. **Bukatu:** 01:10:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Igande arratsaldeetan askotan Tolosara joaten zen zinemara. Hiru zinema-areto ziren orduan Tolosan: Igarondo, Iparragirre eta Gorriti. Zein gustatzen zitzaion gehien. Inauterietan ere zinemara joaten omen zen bera. Berak ez zuen asko gozatu inauteriez, etxera joan behar izaten zuelako lanera.

30. Ostegun arratsaldean neskak txokolatea hartzera

- **Erref:** ANO-008/050
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 01:12:48. **Bukatu:** 01:13:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Garai batean, ostegun santu arratsaldean, neska taldeak joaten ziren Modestoenera txokolatea hartzera. Bestelako igande arratsaldeetan gazte gutxi eratzen zen herrian; normalean denak Tolosara joaten ziren.

31. Igandeetako menua "Moixtonen"

- **Erref:** ANO-008/055
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:18:24. **Bukatu:** 01:19:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Bera umea zenean jaiero zer eskaintzen zuten Modestoenean ("Moixtonen"): tripakiak, mingaina, angulak (sasoia zenean) eta legatz frijitua. Bi aitonak jaiero jaten omen zituzten angulak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com